



Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Lanbide Heziketako irakasle teknikoan, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoetara sartzeko hautaketa prozedura

(2012ko otsailak)

Hautaketa-prozedura oposizio-lehiaketa izango da.

OPOSIZIO-ALDIA (TXANDA LIBREA ETA EZINDUEI ERRESERBATURIKOA)

Oposizio-aldia 2012ko ekainean hasiko da.

Bi probak izango ditu bi zatitan egituratuak. Proba bakoitzak kanporatzailea izango da.

LEHENENGO PROBA (bi zati):

A. (Lehenengo zatia): Proba praktikoa

B. (Bigarren zatia): Gai bat idatziz garatzea.

Proba hau prestatzeko **gai-zerrendak** 2012ko otsailaren 7ko 32. zk.ko Estatuko Aldizkari Ofizialean zehaztuta daude, Bigarren Hezkuntzako irakasleen Euskara eta Literatura espezialitatekoak izan ezik (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren IV. Eranskinean zehaztuta dago, 2011ko urtarrilaren 10eko 5. zk.ko EHAAn) eta Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoko espezialitatekoak izan ezik. (Informazio gehiago, web orrian argitaratutako “Gai-zerrenden aldaketa” berrian).

BIGARREN PROBA (bi zati):

A. (Lehenengo zatia).- Programazio didaktiko baten aurkezpena eta defentsa

A.1) Programazio didaktikoa entegatzeko epea: **2012ko martxoaren 19tik 30era bitartean, eguerdiko 12ak arte** (txanda librearentzat eta ezinduei erreserbatuarentzat, eta talde bereko beste kidego batzuetara eta kidego horietako destino osagarrien mailetara sartzeko txandakoentzat, beti ere jatorrizko kidegoan duen espezialitate bera lortu nahi badu).

A.2) Edukia: Programazio didaktikoa parte hartzen den espezialitateari lotutako arlo, irakasgai, modulu edo eremu (Haur Hezkuntzako espezialitaterako) baten curriculumari



buruzkoa izango da (Euskal Autonomia Erkidegoan arlo, irakasgai, modulu edo eremu horri buruz indarrean dagoen curriculumari buruzkoa), eta helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak, metodologia eta gaitasunak (edo ahalmenak, Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen Kidegoan) eskuratzeari egiten dion ekarpena azaldu beharko ditu, bai eta hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko arreta ere. Irakasleak ikasturte bat garatuko du programazioan, espezialitatea emateko eskumena duen hezkuntza-maila edo –etapa bateko ikasturte bat.

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartu nahi duten izangaien kasuan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko edo Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloetako etapari buruzko programazioa izan daiteke.

Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko Gizartearentzako Zerbitzuak espezialitatean, izangaiak programazio didaktiko bat egin ahal dute edo esku hartzeko programa bat ikastetxe batean, ondorengo esparruetako batean: Gizarte Integrazioa, Gizarte-eta Kultura-animazioa edo Haur Hezkuntza, edo esku hartzeko programa bat hezkuntza-orientabideko talde batean. Kasu hauetan esku hartzeko bederatzi plan espezifiktan gutxienez, espezialitatearen gaiei lotuak, antolatu beharko dira programak.

Programazio didaktikoa egiteko orduan I.Eranskinean zehazten diren curriculumak hartu beharko dira kontuan.

A.3) Formatua: Programazio didaktikoak DIN-A4 formatuko 50 folio izango ditu gehienera ere, alde bakarretik idatzita, espazio bikoitzean, eta “arial” motako letran idatzita, 12 puntuko tamainan. 9 unitate didaktiko izan beharko ditu gutxienez, eta zenbakituta eta garatuta egon beharko dute honako alderdi hauek zehaztuz: lortu nahi diren ikaskuntza-helburuak, edukiak, gelan planteatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak, ebaluazio-prozedurak eta nola garatu gaitasunak (edo ahalmenak, Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen Kidegoan).

Ez da eranskinik sartuko. Programazio didaktikoaren azala eta aurkibidea ez dira 50 folioen barruan zenbatuko.

A.4) Entregatzeko era: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Interneten duen helbidean (<http://irakasle.net> edo <http://hezkuntza.ejgv.euskadi.net>), eta hemen, EPE 2012 Irakasleen kidegoen web orrian.

Programazio didaktikoak entregatu beharko dira formatu elektronikoko hauetako batean:

- Microsoft Office 2007 edo aurrekoa
- Open Office 3.3 edo aurrekoa
- Fitxategiak Portable Document Formaten(PDFn)

Tamainu handiko fitxategiak konprimitu ahal izango dira ZIP edo RAR formatuetan.

**B (Bigarren zatia).- Unitate didaktiko bat prestatu eta aurkeztu**

Deialdi honetan ez dago aukerarik bigarren zati hau aldeztatik aurkeztutako unitate didaktiko baten ordeztu hezkuntza-administrazioaren txostena aukeratzea.

OPOSIZIO-ALDIA (GORAGOKO TALDE BATEKO KIDEGOETARA SARTZEKO)

Lortu nahi duen espezialitateko gai baten ahozko azalpena eman beharko du, epaimahaiak ausaz aukeratutako zortzi gaietako bat aukeratuta. Kidegoko eta espezialitateko gai-zerrendako gaiak izango dira (gai-zerrenda txanda libre eta ezinduei erreserbatutakoak duten berdina da).

Gaiaren aurkezpen didaktiko batekin osatuko da azalpena, izangai bakoitzak libreaki aukeratuko duen ziklo edo maila bateko gaiaren aurkezpen didaktikoarekin.

Aurkezten den titulazio akademikoa eta asmo den espezialitatea bat badatoz, gaia pertsona izangaiak aukeratuko du Epaimahaiak azarean hautatutako bederatziren artean. Bat-etortze hori unibertsitate-karreraren edukitako ikasgaiak eta dagokion espezialitateko iraskasle titularrak egotzita dituen gaien curriculumak kontuan hartuz zehaztuko da.

OPOSIZIO-ALDIA (TALDE BEREKO BESTE KIDEGO BATZUETARA ETA KIDEGO HORIETAKO DESTINO OSAGARRIEN MAILETARA SARTZEKO)

Zati hauek izango ditu probak:

a)-Jatorrizko kidegoan duten espezialitate bera lortu nahi duten izangaiak izangaiak prestatuko duen programazio didaktiko baten azalpena egin beharko du ahoz, eta, ondoren, ahozko eztabaida egongo da. Izangaiak programazio didaktikoa txanda libre eta ezinduei erreserbatutakoentzako ezarri den modu berdinan entregatu beharko du.

b)-Espezialitate bateko titularrak izan eta beste espezialitate bat lortu nahi dutenek goragoko talde bateko kidegoetara sartzeko xedatutakoaren arabera egingo da proba, izangai bakoitzak gai bat aukeratzeko modua izan ezik. Izan ere, epaimahaiak ausaz aukeratuko dituen bederlatzi gairen artean aukeratu beharko du gaia. Deialdian ageriko den kidegoaren eta espezialitatearen gai-zerrendakoak izango dira gaiak.



b) suposamenduan, proban izaera praktikoko ariketa bat egitea sartuko da; honek txanda libre eta ezinduei erreserbatu-koentzako deskribatutako ariketa praktikoaren ezaugarri berdinak edukiko ditu.

OHARRA: Hizkuntzen espezialitateen proba dagokion hizkuntzan egingo da osorik.



I. ERANSKINA

MAISU-MAISTRAK KIDEGOA

Lehen Hezkuntza:

- 175/2007 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa (EHAA, 2007-11-13).

- 97/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den 175/2007 Dekretua aldatzen duena (EHAA, 2010-04-20).

Haur Hezkuntza:

- 12/2009 Dekretua, urtarrilaren 20koa, Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituen (EHAA, 2009-01-30).

- 121/2010 Dekretua, apirilaren 20koa, Haur Hezkuntzako curriculuma sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko 12/2009 Dekretua aldatzen duena (EHAA, 2010-05-07).

BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:

175/2007 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa (EHAA, 2007-11-13).

97/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den 175/2007 Dekretua aldatzen duena (EHAA, 2010-04-20).

- Batxilergoa:

23/2009 Dekretua, otsailaren 3koa. Honen bidez, Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen da (EHAA, 2009-02-27).

122/2010 Dekretua, apirilaren 20koa, Batxilergoko curriculuma sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko 23/2009 Dekretua aldatzen duena (EHAA, 2010-05-07).



- Lanbide Heziketa:

Lanbide Heziketako titulua ezartzeko Errege Dekretu bakoitza eta dagokion curriculuma ezartzeko Dekretu bakoitza.

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO IRAKASLEEN KIDEGOIA

Hizkuntza-ikasketen oinarriko, tarteko, aurreratu eta gaitasun mailen ezarpena eta curriculuma. 46/2009 Dekretua, otsailaren 24koa (EHAA, 2009-03-12)

MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOKO IRAKASLEEN KIDEGOIA

229/2007 Dekretua, abenduaren 11koa. Honen bidez, ezartzen da musika-ikasketa profesionalen curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak (EHAA, 2008-03-13).

LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOIA

- 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena. (BOE, 2011ko uztailaren 30ekoa)

- 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (EHAA, 2008ko martxoaren 5ekoa).

- Curriculumak onartzeko arauen zerrenda argitara eman zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuako 2009ko abenduaren 10ean emandako Aginduaren VI. eranskinean; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoan sartzeko hautaketa-prozedura deitu zen (EHAA, 5. zk., 2010eko urtarrilaren 11koa). Beranduago, LOEko tituluen curriculuma argitaratu dira EHAA-n, hain zuzen ere zerrenda horretan azaltzen diren LOGSE tituluen curriculumak ordezkatzen dituztenak.

www.euskadi.net/lanbidez - HLO tituluen dekretuak- web orrira jo beharko da HEAA-n argitaratu diren LOE tituluen curriculumen zerrenda eguneratua ezagutzeko, hots, LOGSE tituluak ordezkatzen dituztenen zerrenda ezagutzeko.



Programazio didaktikoa LOE curriculumen gainean egin beharko da, baldin eta, 2011-2012 ikasturte akademikoan, gutxienez heziketa-zikloko lehengo mailan, ezarrita badaude.

Programazio didaktikoa LOGSE curriculumen gainean egin ahal izango da ere, baldin eta 2011-2012 ikasturte akademikoan heziketa-zikloko lehengo mailan ezarrita badaude.

LOE tituluaren curriculumak heziketa-zikloko lehenengo mailan ezarrita daudenean 2011-2012 ikasturtean, baina oraindik argitaratu gabe badaude EHAAn hautaketa-prozeduraren deialdia argitaratzen denean, programazio didaktikoa egiteko, kontuan hartu beharko da zein den titulua arautzen duen errege-dekretuak jasotzen dituen gutxienerako irakaskuntzen edukia.

Laneko Prestakuntza eta Orientabidea espezialitatean, programazio didaktikoa egiteko, kontuan izango dira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (LOEren) ondorioz sortutako heziketa-zikloetako lanbide-modulu hauetariko bat: “Laneko prestakuntza eta orientabidea” eta “Enpresa eta ekimen ekintzailea”.